

# Unibertsitateak eta hezkuntza sistemak eragindako arrakalak agerian

Unibertsitatera sartzeko proba egitear da milaka ikasle. Gure gizarte desorekatuan, azken helduleku eta esperantza beti da hezkuntza: aukera berdintasunaren ikur, igogailu sozialerako amets. Errealitatean, baina, pribilegiatuak pribilegiatu eta zapalduak zapaldu mantentzen dituen lasterketatik ez ote duen gehiago hezkuntza sistemak.

Lasterketa horretan helmugara nor iritsiko den erabakitzen duten filtroek nola eragiten dute ikasleen arteko arrakalan? Zenbat dira unibertsitatera ailegatuko direnak eta unibertsitate urteei eutsi diezaieketenak? Zergatik dago gero eta unibertsitate pribatu gehiago? Zer dago ustezko meritokraziaren, kalifikazioen eta eskola-porrotaren atzean?

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**E**uskal Herriko milaka ikaslek egingo dituzte EBAU (garai bateko selektibitate) eta Baxoa ekainean. Presio bezainbeste espektatibarekin joango da bat baino gehiago, gustuko ikasketak egin eta bizibide on bat lortu ahal izatea helburu. Unibertsitatea igoera sozialaren ideiarekin lotzea ez da berria, baina krisi garaiotan desmitifikatu egin dela uste du Ikasle Abertzaleak antolakundeko Ibai Berezibarrek, “eta horren isla da gero eta jende gehiagok ikasten duela unibertsitatean, gero eta titulu eta master gehiago dituela jendeak, baina kontrara gero eta langabezia handiagoa eta prekarizazio gehiago dagoela”. Antzera mintzatu zaigu Ernaiko Jon Arrieta: “Unibertsitatearen prestigioak behera egin du, gradu batekin ez duzulako ezer ziurtatuta eta prekaritatea nagusitu delako”. Igogailu sozialaren ustea mantentzen dela dio Jon Diaz EHUko irakasleak: “Aurreko belaunaldian nabarmenagoa

**Boloniak graduen luzera murriztu zuen arren, praktikan graduek ez dute firtsik balio, masterra egin behar izaten da ondoren, eta horien kostua handia da**

zen, baina oraindik ere bada igogailu soziala, edo jendeak irudi hori du gutxienez, dena delakoa ikastera baina unibertsitatera joan nahi hori badago. Ikuspegi sozialaz ari naiz, zeren alde ekonomikotik ikusten dugu nahiz eta unibertsitatera joan oso beltz dagoela lan merkatua”. Dena den, lanpostu eta ordainsari ho-beak lortzeko bidearekin identifikatzen

dugu unibertsitatea, Jaione Apalategi NUPeko irakaslearen iritziz.

Kontuak kontu, unibertsitatean ikasleak zer suposatzen duen, kanpoan zein uzten duen eta unibertsitate pribatuek zein rol jokatzen duten jorratu aurretik, jo dezagun atzera hezkuntza ibilbidean, ikasleen arteko desoreka eta arrakalak ez baitira 18 urterekin hasten. Aukera berdintasuna printzipiotzat dugun arren, ikasle batzuek eta besteek etxetik dakarten motxila, ikastetxe batzuetatik bestera dagoen aldea (errealitate sozioekonomikoan, baliabideetan, pedagogian), akademizismo zurruna... badira desoreka eragile. “Hezkuntzak haur guztien beharretara egokitu behar du, baina ez da hala egiten –dio Jon Diazek–. Nota akademikoen eta lehiaren balioekin sortzen duguna eskola-porrota da, sistema joaten delako garbitzen, eta horri arazo sozialak, ekonomikoak, kulturalak... gehitzen badizkiogu, pentsa”.



Eskola gizartearen isla den heinean, gizartearen ematen diren zapalkuntza eta arazoak ematen dira hezkuntzan ere, Jon Arrietaren hitzetan: “Hezkuntza ibilbidea ez da zerotik abiatzen den prozesu bat, faktore batzuen eragina du hasieratik, eta behar berezi batzuk baldin badituzu, orokorrean hezkuntza sistema honek ez ditu bermeak jartzen gainerako modu berean integratzeko eta aurrera egiteko”. DBH eta Batxilergoan antolatzen den Ikama ikasle mugimendua ere iritzi berekoa da; hala azaldu digu Maialen Lagok: “Hezkuntza sistemak bultzatzen du ikasle profil jakin bat, ahalmen jakin batzuk dituen, tartean memorizatzeko gaitasuna, zazpi orduz eserita arreta mantentzekoa... baina milaka ikasle daude eskatzen diren molde horietan sartzen ez direnak, eta horiek daude gehiago porrotera kondenatuta. Irabazle eta galtzaileen arteko eredu honetan, nota onek egiten dute aurrera, laguntza behar duten ikasleek ez dute sarri laguntza hori jasotzen eskolan, eta dirua duena joango da akademiara eta klase partikularretara eta arinago egingo du aurrera”.

Ibai Berezibarren ustez, sistemikoa da arrakala, eta “hezkuntza sistema kapitalistaren izaera bera da baztertzaila, ikasleen ongizatea eta ezagutza unibertsalaren transmisioa ez baititu lehenesten; ikasle zaurgarrienak hezkuntza prozesutik nola kanporatzen dituen ikustea besterik ez dago”. Agurtzane Martinez Mondragon Unibertsitateko irakaslearen arabera, “gaur egun, duela urte batzuk baino gehiago gainera, eskolak mantentzen ditu pribilegioak dituzten umeen pribilegioak eta opresioak dituzten umeen opresioak. Diskurtsiboki denok diogu eskolaren funtzioa dela egoera hori orekatzea eta iraultzea, baina esango nuke gure egitekoekin hainbat eta hainbat kasutan egoera mantentzen dugula eta pribilegioak ez dituzten umeek segurtasun falta handiagoa dutela eskolan, dituzten beharrak ez direlako hain erraz onartzen”.

### **MERITOKRAZIA FALTSUA ETA ONENENTZAKO ESKOLA**

“Gehien ahalegintzen denak lortuko du arrakasta bizitzan, ideia hori saltzen zaigu, baita hezkuntzan ere, baina ideia horrek ez ditu faktore asko kontuan hartzen. Nota, eta ebaluazio sistema orokorrean, filtro sozialerako mekanismoa da, gaitasun jakin batzuk baino ez ditu aintzat hartzen (eta beste asko ez), memo-



NINGO URIZ / FOKU

**“Nota filtro sozialerako mekanismoa da, gaitasun jakin batzuk baino ez ditu aintzat hartzen, memorizazioan oinarritzen da, eta baldintza ekonomiko ugari ezkututzen dira nota baten atzean”**

**Ibai Berezibar**

**“Jende asko geratzen da bidean, beraz malguagoak izan beharko genukeela? Curriculuma aztertu beharko litzateke, ea nola aplikatu behar den, bidezkoa den, arrakala areagotzen duen...”**

**Juan Karlos Lopez-Mugartza**

rizazioan oinarritzen da, eta baldintza ekonomiko ugari ezkututzen dira nota baten atzean: etxeko egoera zein den, klase partikularrak ordaindu ote ditzaitezun, zure herriko azpiegiturak zein diren...”, dio Ibai Berezibarrek. “Gurasoen

laguntza jasotzea, baliabideak izatea, eskolaz kanpoko jardueretan aritzeko aukera izan eta harreman afektibo egonkorrak mantentzea, integratuta egotea... Horrek guztiak positiboki eragingo du ikaslearen hezkuntza prozesuan eta notetan, eta alderantziz”, Jon Arrietaren esanetan.

Ikastetxe batzuetan notak puzten ditzutela albiste izan berri den honetan, ikasle batzuek curriculum eta ebaluazio malguagoekin, beste batzuek curriculum eta ebaluazio zorrotzagoen pean egiten dute bidea, eta bigarren horiez galdetu diegu solaskideei: bikaintasuna ipar, ikastetxe batzuetako zorrotzetasuna ez al da onenentzako lekua, denontzako lekua izan ordez? Tere Maldonado Filosofia irakasleak honela kontatu zuen, *Berrian*: “Ikastetxe publikoen irakasle-taldeek ikasleen azken nota jartzean maneiatu behar duten egoera dilema moral borobila izaten da. Jakin badakite nota horrek batez besteko notarako zentratuko duela, aukerak irekiko edo itxiko dizkiola ikasleari (bekak eskuratzeko edo goi-mailako ikasketak egiteko). Askotan, badakite ere ondoko itunpeko zentroak, zeinarekin ikasleak erakartzeko lehian dauden, notak puztera jotzen duela. Gauzak horrela, bidezkoa al da gure ikasleak nota zehatzago baina batzuetan baxuagoekin ateratzea institututik?”.

Juan Karlos Lopez-Mugartza irakasleak erantzun digu behin baino gehiagotan entzun duela *zorrotzetasuna* hitza hezkuntza publikoari lotuta, “baina cu-

# Datutan

## Gutxieneko nota

14 izanik atera daitekeen notarik altuena, hauek dira Hego Euskal Herriko unibertsitate publikoetan sartu ahal izateko gutxieneko notarik altuena eskatu duten graduak, 2022-2023 ikasturtean:

Fisika eta Ingeniaritza Elektronikoko Gradu Bikoitza (EHU) **13,200 (20 plaza)**

Medikuntza (NUP) **12,977 (60 plaza)**

Biokimika eta Biologia Molekularra (EHU) **12,956 (40 plaza)**

Datuen Zientzia eta Bioteknologia Gradu Bikoitza (NUP) **12,907 (10 plaza)**

Medikuntza gaztelaniaz / euskaraz (EHU)

**12,853 / 12,698 (200 plaza / 130 plaza)**

Enpresa eta Ekonomia Gradu Bikoitza ingelesez (EHU) **12,845 (20 plaza)**

Bioteknologia (EHU) **12,554 (40 plaza)**

Ikus-entzunezko Komunikazio eta Kazetaritza Gradu Bikoitza (EHU) **12,496 (15 plaza)**

Datuen zientzia eta EAZ Gradu Bikoitza (NUP) **12,494 (10 plaza)**

*\* Urtero, plaza kopuruaren eta demandaren arabera, baita gradu jakin batean ikasi nahi duten ikasleek atera dituzten noten arabera, gutxieneko nota aldatu egiten da.*

## Publiko-pribatu proportzioa

Hego Euskal Herrian, ikasleen **%35,7** joan zen unibertsitate pribatura 2020-2021 ikasturtean, eta %64,3 publikora.

EAEn, 2010 inguruan 10 ikasletik 2 joaten ziren unibertsitate pribatura, gaur egun 10 ikasletik 3, eta **pribaturako joera gorantz ari da.**

Nafarroan, ikasleen **%55** doa unibertsitate pribatura eta %45 publikora.

Azken hamar urteotan **%21** hazi da masterren eskaintza unibertsitate pribatuetan.

## Ikasle kopurua

2022-2023 ikasturtean Hego Euskal Herriko unibertsitateetan matrikulatu diren ikasle berriak (ez unibertsitatean ikasten ari diren ikasle guztiak):

**17.443 ikasle**

EHU: 8.316


NUP: 2.100

Nafarroako Unibertsitatea (Nafarroan/Gipuzkoan): 2.470/280

Deustu: 2.467

Mondragon Unibertsitatea: 1.700

Euneiz: 110



## Zenbait prezio

### EHU/NUP

Graduen ikasturteko matrikula: **1.000-1.500 €**

### MASTERRAK:

Ingeniaritza Industrial eta Enpresa Zuzendaritzan

Master Bikoitza (NUP) **3.611 €**

Nekazaritzako Ingeniaritza (NUP) **2.551 €**

Nutrizio osasuna (EHU) **2.200 €**

Ekonomia sozial eta solidarioa (EHU) **1.800 €**

Osasun Publikoa (NUP) **1.701 €**

Enpresa kudeaketa (EHU) **300 €**

### DEUSTU

#### GRADUAK, IKASTURTEKO:

Medikuntza **16.200 €**

EAZ eta Zuzenbidea **11.448 €**

Euskal Hizkuntza eta Kultura **6.360 €**

#### MASTERRAK:

EMBA - Executive MBA **41.500 €**

Osasun Psikologia Orokorra eta Psikoterapia

Sistemiko eta Erlazionala **16.140 €**

Nazioarteko Ekintza Humanitarioko NOHA **12.000 €**

### MONDRAGON UNIBERTSITATEA

#### GRADUAK, IKASTURTEKO:

Lidergo Ekintzailea eta Berrikuntza **9.010 €**

Ikus-entzunezko komunikazioa **6.000 €**

Haur Hezkuntza **5.820 €**

#### MASTERRAK:

Industria Ingeniaritza **19.872 €**

Gastronomia Zientziak **12.875 €**

Ekintzailetza eta Berrikuntza Irekia **9.280 €**

### NAFARROAKO UNIBERTSITATEA (OPUS)

#### GRADUAK, IKASTURTEKO:

Medikuntza **18.300 €**

Ingeniaritza Elektrikoa (Gipuzkoako campusean) **14.500 €**

Kazetaritza **12.600 €**

#### MASTERRAK:

Abokatutza eta Prokuradoretzara Sartzeko eta

Zuzenbide Digitalean master bikoitza **34.901 €**

Moda Gestioa **27.000 €**

Arkitektura eta Jasangarritasunean master bikoitza **21.000 €**

### EUNEIZ

Inprimaki bidez eskatu behar zaizkio gradu eta masterren prezioak. Gainerako informazioa webgunean dute.

rriculumak ezartzen dituen irizpideak jarraitzen ditugu, curriculuma bera baita zorrotza eta presioa jaitea zaila da"; behin hori esanda, "egia da jende asko geratzen dela bidean, beraz, malguagoak izan beharko genukeela? Curriculuma aztertu beharko litzateke, ea nola aplikatu behar den, bidezkoa den, arrakala areagotzen duen...". Ez dira gutxi, curriculum eta eman beharreko materia arindu beharko liratekeela aldarrikatu izan duten irakasleak.

### LANBIDE HEZIKETA, PORROTA?

"Hezkuntza baldin bada etorkizuneko lan-indarra hezteko eta sortzeko instituzioa, kapitalaren behar produktiboen arabera eraldatuko da. Etorkizuneko langilea lan sinplifikatuetara ohitu beharrik ikasleok jasotzen dugun heziketaren sinplifikazioa ekarri duela begi-bistakoa da, laneko kompetentziak inposatzen dizkigute hasiera-hasieratik: DBHn bertan bideratzen da Lanbide Heziketara, nota filtro gisa erabiliz; badirudi Lanbide Heziketa dela hezkuntza sistemaren baldintzetara egokitzen ez denari eskaintzen zaion alternatiba –kritikatu du Berezibarrerekin-. Heziketa formakuntzan oinarritu beharrean, eskulan merkea sortzera zuzentzen da". Arrietaren iritziz, "Lanbide Heziketara joatea markatzen zaigu porrot moduan, unibertsitateara joatea da arrakastaren bidea". "Unibertsitate sakralizatu da eta estatus jakin baten bila dator jende oldea –dio Jaione Apalategi irakasleak-. Bien bitartean, alde batera utzi da Lanbide Heziketa, eta Lanbide Heziketa da ondo prestatzen eta formatzen duen heziketa, bat egin dezakeena pertsona batzuen gaitasun eta premiekin, eta unibertsitate batek bezain zorionsu egin zaitzakeena". Ildo berean mintzatu zaigu Lopez-Mugartza: "Nola prestigiaturiko dugu Lanbide Heziketa, erabiltzen bada nota onak ateratzen ez dituen desbideratzeko, kanporatzeko?".

Beste ateetako bat unibertsitatea da, baina Bolonia plana inflexio puntua izan zen: graduen luzera murriztu zuen arren, praktikan graduek ez dute fisik balio, masterra egin behar izaten da ondoren, eta horien kostua handia da (pribatuan zer esanik ez, badira 36.000 euro balio duten masterrak Nafarroako Unibertsitate pribatuan). Unibertsitate urteak luzatu eta garestitu egin dira, eta horrek jende ugari uzten du kanpoan. Matrikulaz gain (1.000 euro pasatxo ikasturtero, graduko matrikulak), bestelako gastuei egin behar zaie aurre: fotokopiak, liburuak, hainba-

tetan pisu baten alokairua edo bestela joan-etorriko gastuak, zenbait ikasketetan materiala... "Suspensoak egonez gero, garestiago ateratzen zaizu bigarren matrikula, berriz gaintzen ez baduzu hirukoiztu egiten da prezioa... eta niri ikasleak negarrez etorri zaizkit, gaintu gabeko ikasgai hori ezin ordaindu –kontatu digu Lopez-Mugartzak-. Pribatuarekin konparatuta gutxi da ordaindu behar dena, eta hala ere, jende asko da ezin duena ordaindu eta gure unibertsitateko gizarte zerbitzu sailera doana. Nik dekanorde bezala denetarik ikusi dut Nafarroako Unibertsitate Publikoan, tristea da egoera, baina guk inor ez dugu etxera diru kontuengatik bidali".

### Mediku nahikorik ez badago, zergatik ez da unibertsitatean plaza gehiago eskaintzen? "Osakidetzaren barruko egoera bermatuta dagoelako osasungintza pribatuaren alde"

Beka sistemaz galdetuta, adabakiak direla, gastuei aurre egiteko ez direla nahikoa eta baldintza asko dituztela diote elkarrizketatuek. "Babes sistema konpentsatzailea dugu, desoreka sozialak eragiten ditugu eta gero sortzen ditugu babesteko sistemak, baina horrek ez du gaintzen dagoen arazoa, unibertsitatearen aurreko hezkuntza mailetan hainbete bizi duen egoerari eta behar duen arretari, adibidez, ez diote erantzuten bekek. Eta beken kopuruak eta baldintzak hobetu egin dituzte, baina aldi berean jendeak gero eta behar ekonomiko handiagoak ditu", azaldu digu Jon Diazek. Danimarkan eta Suedian, unibertsitateara joateko gurasoen etxetik urrun doazen ikasleei administrazioak etxeko alokairua eta beste ordaintzen diela kontatu digu Jaione Apalategik, eta lanpostua aurkitzen dutenean horren portzentaje bat itzultzen dutela.

### PLAZA PUBLIKO NAHIKOA?

Diruak bakarrik ez, notak ere baldintzatzen du unibertsitate publikoan sartu

eta norberak nahi dituen ikasketak egin ahal izatea. Unibertsitate sartzeko probek zeresan handia dute horretan, eta Batxilergoko lana hiru egunetan ebaluatuko diete ikasleei, horrek askoren-gan eragiten duen presio eta ezinegonarekin. Notak zer islatzen duen eta zer ez, kalifikazio baten atzean zer ezkututzen den aipatu dugu dagoeneko, baina filtro nagusietakoa izaten jarraitzen du, eta ikasketa batzuetan eskatzen den nota oso altua da. Medikuntza da, ziurrenik, kasurik paradigmaticoenetakoa: izugarri altua da eskatzen den nota, 14tik 13ren bueltakoa. EHUn, esaterako, 368 plaza baino ez dira eskaintzen Medikuntza graduan, nahiz eta azken hamar urteotan urtero 2.000tik gora ikasle Medikuntza ikasi nahi izan duten. Aldi berean, Osasun sailburuari behin eta berriz entzun diogu ez dagoela nahikoa medikurik. Zergatik ez da, orduan, atea gehiago zabaltzen eta plaza gehiago eskaintzen? "Osakidetzaren barruko egoera bermatuta dagoelako osasungintza pribatuaren alde; Quironnek alfonbra gorria du gurean –erantzun digu Jon Diazek-. Larritasun egoerara eraman dute publikoa eta pribatuari eskaintza luzatu diote".

Oro har, nahikoa plaza dago unibertsitate publikoan? Diazen arabera ez, publikoaren eskaintza egiterakoan kontuan hartzen delako ikasleen proportzio bat pribatura joango dela; "plaza eskaintza orokorra egiteko pribatuak ere kontuan hartzen ditu Eusko Jaurlaritzak, beti ere pribatuaren interesen mesedetan".

### PUBLIKOA, PRIBATUA ETA ARRAKASTARAKO GILTZA

EAEn, 2010 inguruan hamar ikaslelik bi joaten ziren unibertsitate pribatura, eta gaur egun hamarretik hiru, "eta pribatuaren aldeko joera gorantz doa", azaldu digu Diazek: "Unibertsitate publikoaren zenbakiak berdin mantentzen dira eta pribatuarenak %5 igo dira urtero, azken hiruzpalau urteetan". Nafarroan, "pribatua beti egon da goitik", esan digu: ikasleen %55 pribatura doa eta %45 publikora; "OPUSe indar handia du". Demografia, pandemia eta ekonomia krisiek gehiago eragin diote unibertsitate publikoaren ikasle kopuruari, pribatuari baino: "Ikusten da krisiak gehiago eragiten diela langile klaseko familiei, eta etxe berean seme-alaba bat baino gehiago baldin baduzu, biak unibertsitateara joatea ezinezko da hainbatentzat".



JUANAN RUIZ / FOKU

Irudian, ikasleak EHU aurrean. “Plaza eskaintza orokorra egiteko pribatuak ere kontuan hartzen ditu Jaurlaritzak, pribatuaren mesedetan”, dio Jon Diazek.

*Hego Euskal Herriko eliteak. Boterearen azterketa* liburuan (2021), maila goreneko postuetan lanean ari direnek aurrez unibertsitate publikoan ala pribatuan ikasi duten ikertu zuen Diazek zuzendutako EHUKo talde batek: “Zenbakiek diote batez beste pareko direla publikoan eta pribatuan ikasi duten goikarguak, baina kontua da unibertsitate pribatura joateko aukera duen populazioa hamarretik bi-hiru dela, beraz bi-hiru horiek lortzen dute bosten tokia. Ondorioa da maila batean unibertsitate publikoa badela aipaturiko igogailu sozial horretan lanpostu on bat lortzeko bidea, baina ez botereguneetara eta elitera iristeko bidea”.

## ZERGATIK DOA JENDEA PRIBATURA?

Elite horretara ailegatu nahi izatea, lanpostu bat lortzeko enpresa pribatuekin unibertsitate pribatuek duten harreman sarea baliatzea edota publikoan sartzeko aukerarik izan ez eta pribatura jozteaz –horretarako diru eta baliabideak dituenak, jakina– izan daitezke unibertsitate pribatua hautatzeko arrazoiak, baina sakonean gizarrean errotuta dagoen sinesmen bati ere erantzuten dio sarri: “Ordaintzen baduzu, hezkuntza kalitatezkoagoa ordaintzen ari zarela, diskurtso hori hedatu da eta intuitiboki hala dugu barneratuta; pribatua izate hutsagatik izen ona eta prestigioa bermatua du, eta

**“Dirua dutenak beren ghettoetan elkartzen dira, eta ghetto horretan sartzen bazara dirudun horien abantailez gozatuko duzu, ideia horren atzetik zoaz unibertsitate pribatura”**

**Juan Karlos Lopez-Mugartza**

pena da, batzuek nahiago dutelako 7.000 euro ordaindu ez-dakit-nongo unibertsitatean online ikasteko, aurrez aurreko ikasketak unibertsitatean jaso ordez –uste du Lopez-Mugartzak–. Gurpil bat ere bada: dirua dutenak beren ghettoetan elkartzen dira, eta ghetto horretan sartzen bazara dirudun horien abantailez gozatuko duzu, horren bila zoaz”.

## MASTERREN NEGOZIO ITZELA

Errealitatea da European gero eta unibertsitate pribatu gehiago dagoela; gurean azkena, Euneiz Gasteizko unibertsitate pribatua. Unibertsitateen interesa masterretan dagoela nabarmendu du Jon Diaz irakasleak, negozioa eta dirua hor mugitzen baita; azken hamar urteotan

%21 hazi da master pribatuen eskaintza Espainiako Estatuan. “Horri gehitu behar zaio master batzuk zuzenean enpresa pribatuek eskaintzen dituztela unibertsitatean: Kazetaritzan *El Correo* masterra esaterako beteta dago; datuek erakusten dute hedabideek gero eta langile gutxiago dutela, baina hala ere esperantza hori saltzen du masterrak, eta *El Correo* lan egin nahi duenak badaki horretarako master hori egin behar duela”. Inbertsio funtsek unibertsitateetan duten presentzia ere ohartarazi du Diazek: “Milioika euro daude jokoan, sekulako negozioa dira unibertsitate pribatuak, eta orain Euneizekin zer gertatuko den ikusi beharko da”.

Logika pribatua unibertsitate publikoan sartuta dagoela ere azpimarratu dute solaskideek: enpresen interbentzio zuzena eta zeharkakoa ikasketetan, unibertsitateak darabilen teknologia eta azpiegituretan, masterretan, enpresetan egiten diren praktikaldietan –eta zein baldintzatan egiten diren–, ikasketa batzuen indartzean eta beste batzuen devaluazioan...

Bestelako hezkuntza eredu bat aldarrikatu dute elkarrizketatuek, erreportajearen aipaturiko gaitzetatik urruntzeko. Gauza batean ados daude: badago zer hobetu, benetan hezkuntza izan dadin gizarreko arrakalen orekatzaile eta ez gizarrearen ajeak gutxi-gehiago erreproduzitzen dituen sistema. ●